



2010/11/17ko prentsa oharra

**HIGIEZINEN ESKAINTZARI BURUZKO ESTATISTIKA, 2010eko 3. hiruhilekoa**

**2010eko bigarren hiruhilekotik hirugarrenera, EAEko erabilitako etxebizitzaren metro koadro erabilgarriaren eskaintza-prezioa % 0,6 igo da, eta etxebizitza librearena berriz, % 1,1 jaitsi da.**

Higiezin agentziek etxebizitza bat saltzeko behar duten batez besteko denbora 8,3 hilabetekoa da.

Eusko Jaurlaritzako Etxebizitza, Herri Lan eta Garraio Sailak egiten duen higiezin eskaintzari buruzko estatistikaren arabera, 2010eko hirugarren hiruhilekoan etxebizitza erabiliaren metro koadro erabilgarriaren batez besteko prezioa % 0,6 igo da, aurreko hiruhilekoarekiko, eta % 2 urtebete lehenagokoarekiko, 3.892 euro egin baititu.

Araban higiezin agentziek etxebizitza erabilientzat eskatzen duten metro koadroaren prezioa % 1,7 jaitsi da, baina 2009ko hirugarren hiruhilekoak baino % 0,3 altuagoa da, halere. Bizkaian aldiz, % 1,4 igo da 2010eko bigarren hiruhilekoarekiko, nahiz eta % 0,8ko jaitsiera daraman azken 12 hilabeteetan Gipuzkoan, bestetik, hirugarren hiruhilekoan % 0,6 egin du gora, aurreko hiruhilekoarekin alderatuz gero, eta urteko hazkundera % 2,5koa da.

Donostian erabilitako etxebizitzaren metroko koadroko prezioa % 1,9 igo da azken hiru hilabete hauetan. Bilbon hazkundera % 0,6koa izan da, epe berean. Aldiz, Vitoria-Gasteizen metro koadroko prezioa % 1,7 jaitsi da hiru hilabeteetan. Azken hamabi hilabeteetako bilakaerari erreparatuz gero, Donostia eta Vitoria-Gasteizen % 1,5 eta % 0,6ko hazkunde negatiboa izan dute. Bilbon hazkundera positiboa izan da, % 0,8koa.

Bitartekari lanak egiten dituzten higiezin agentziek esaten dute saltzaileek % 16,2 inguru jaitsi behar izaten dutela erabilitako etxebizitzaren prezioak, salmenta gauzatu ahal izateko. Horrek esan nahi du, azken hiru hilabeteetan 3,5 puntu jaitsi dela, baina hala eta guztiz ere, 3,1 puntu gehiago jaitsi behar izaten dutela, aurreko urteko aldi berarekin alderatuta.

**Etxebizitza berri librearen metroko koadroaren eskaintza-prezioa, 3.927 euroren bueltan baitabil, % 1,1 jaitsi da hiruhilekoan, eta urtebeteko epean % 2,8ko jaitsiera metatua izan du.**




Etxebizitza berri librearen metro karratuaren eskaintza-prezioak %1,1 egin du gora 2010eko bigarren hiruhilekoarekin alderatuta, eta % 2,4ko hazkundera metatu du azkeneko 12 hilabeteetan. Bizkaian, aitzitik, metro koadroaren prezioaren % 0,8 jaitsi da azken hiru hilabeteetan, eta % 3,6ko jaitsiera metatua izan du azken urtebetean. Gipuzkoan jaitsiera % 3,0a iritsi da, aurreko hiruhilekoarekin alderatuta, eta % 3,4ra azken hamabi hilabeteetan.

**Etxebizitza libre berriaren metro koadroaren prezioa % 6,1 jaitsi da Donostian azken hiruhilekoan.**

Bilbon etxebizitza librearen eskaintza-prezioek gora egin dute, % 1,8, eta Vitoria-Gasteizen, berriz, % 1,4. Azken hamabi hilabeteetan etxebizitza librearen metro koadroko eskaintza-prezioak % 12,9 egin du behera Donostian. Aldiz, Bilbon eta Gasteizen gora egin du epe horretan, lehenengoa % 7,9 eta bigarrenen, % 1,4.

**Sustatzaile eta higiezin agentziek etxebizitza librearen prezioa 9.900 euro jaitsi dute azken hamabi hilabeteetan, hots, % 3,0.**

Etxebizitzaren m<sup>2</sup> erabilgarriaren arabera batez besteko prezioaren bilakaera etxebizitza motaren arabera eta hiruhileko bakoitzeko. 1996-2010. Euskadiko AE.  
Euroak.



**Iturria:** Etxebizitza, Herri Lan eta Garraio Saila. Higiezinaren Eskaintzari buruzko Estatistika

*EREDUZKO ETXEBIZITZA:* Etxebizitza berria, kolektiboa, sustapen librekoa, sustatzaileak zuzenean eskainitakoa, akabera-maila "arrunta" duena eta 60 eta 90 m<sup>2</sup> arteko azalera duena.

Sustatzaile eta higiezin agentziek etxebizitza libre berriei jartzen dien batez besteko eskaintza-prezioa 321.600 euro ingurukoa izan da, 2010eko hirugarren hiruhilekoan, % 0,4 jaitsi da, aurreko hiruhilekoarekiko, eta % 3,0, aurreko hamabi hilabeteekin alderatuz gero.



Bigarren eskuko etxebizitzaren batez besteko prezioa -325.100 eurokoa-, etxebizitza libre berria baino 3.500 euro gehiago, batez beste, igo egin da azken hiruhilekoan, % 1,9 igo ere, eta horrekin % 3,4ko igoera metatu du, azken 12 hilabeteetan, hau da, 10.800 euroko hazkundera.

Arabako etxebizitza libre berriaren eskaintza-prezioak azken hiruhilekoan % 1,3 igo dira, erabilitakoa jaitsi den proportzio berean, hain zuzen. Erreferentzia gisa 2009ko hirugarren hiruhilekoa hartzen badugu, etxebizitza libre berriaren prezioak igoera metatua % 2,3 izan du, eta erabilitakoak, % 1,1 jaitziera. Lurralde horretako etxebizitza librearen batez besteko prezioa 294.600 eurokoa da, eta erabiliarena, 284.300 eurokoa.

Bizkaian etxebizitza librearen azken hiruhileko eskaintza-prezioa 314.300 eurokoa da, horrek esan nahi du % 0,5 jaitsi dela azken hiru hilabeteetan, eta % 4,5 azken urtebetean. Erabilitakoaren eskaintza-prezioak % 3,3 egin du gora bigarren hiruhilekoarekiko, urtebetean % 1,6ko igoera; egungo batez besteko prezioa 312.300 euro ingurukoa da.

Gipuzkoan, etxebizitzaren batez besteko preziorik altuenak baititu, etxebizitza libre berriaren batez besteko prezioa 346.900 eurokoa da, eta 398.500 eurokoa bigarren eskukoarena; berriaren prezioak % 1,8 egin du behera azken hiru hilabeteetan, eta erabilitakoak berriz, % 2,0, gora. Azken hamabi hilabeteetan, etxebizitza libre berriaren prezioa % 2,9 jaitsi da, batez beste, eta bigarren eskukoarena, igo, % 5,9.

***Etxebizitza libre berriaren eskaintza-prezioa, batez beste, 45.700 euro igo da Bilbon eta 6.600 euro, Vitoria-Gasteizen azken hamabi hilabeteetan. Aitzitik Donostian jaitsi egin da, batez beste, 27.800 euro.***

Azken hamabi hilabeteetan Bilboko eta Vitoria-Gasteizko higiezin agentziek eta sustatzaileek % 11,6 eta % 2,1 igo dute etxebizitza libre berriaren bateko eta besteko prezioa. Donostian aldiz, % 6 jaitsi dute.

Azken hiruhilekoan etxebizitza horien salmenta-prezioa % 2,0 igo da Vitoria-Gasteizen, eta % 3,3 Bilbon. Donostian ordea, % 2,8ko jaitziera nozitu dute. Batez besteko prezioa 440.600 euroko da Bilbon, 434.500 eurokoa Donostia, eta, baxuena, 314.800 euro, Vitoria-Gasteizen.

Erabilitako etxebizitzaren salmenta-prezioa % 1,3 jaitsi da azken hiruhilekoan Vitoria-Gasteizen, eta % 3 eta 1,5 igo, hurrenez hurren, Donostian eta Bilbon. Azken hiriburu horretan 2009ko hirugarren hiruhilekotik % 7,7ko igoera gertatu da -27.600 euro gehiago batez beste- eta % 1,2ko -5.600 euro gehiago- Donostian. Bestetik, Vitoria-Gasteizen batez besteko prezioa % 1,6 jaitsi da, 4.800 euro gutxiago.

***Azken urtean % 2,8 jaitsi da alokairuko etxebizitzaren eskaintza higiezin agentzien eta erakundeen aldetik.***



ETXEBIZITZA, HERRI LAN  
ETA GARRAIO SAILA  
Zerbitzu Zuzendaritza  
Estatistikarako Organo Berezia

DEPARTAMENTO DE VIVIENDA,  
OBRAS PÚBLICAS Y TRANSPORTES  
Dirección de Servicios  
Órgano Estadístico Específico

Alokairuko etxebizitzaren eskaintzaren bolumena –libre, babestu eta sozialarena– % 2,8 jaitsi zen azken hamabi hilabeteetan, eta % 8,6ra arte, azken hiruhilekoan, hau da, eskaintza osoa hartuta, hamarretik bat inguru; % 10,7.

Etxebizitza libreen batez besteko errenta 912,0 eurokoa da, azken hiruhilekoan baino % 2,2 gehiago, eta aurreko hiruhilekoan baino % 2,0 gehiago.

Babestutako etxebizitzak –BOE eta etxebizitza sozialen– batez besteko errenta 199,6 euroko da, aurreko hiruhilekoan baino % 4,9 gutxiago eta hamabi hilabete lehenago baino % 11,0 gutxiago.

Babestutako etxebizitzak –BOEk eta etxebizitza sozialek–, merkatuan saltzeko eskainitako hamar etxebizitzatatik bat baino gehiago jartzen du, % 12,1, batez beste 111.800 euroko prezioan –1.478 euro metro koadro erabilgarriko–. Etxebizitza horien metro koadroko batez besteko prezioak % 0,6 egin du gora azken bi hiruhilekotan, eta 2009ko azken hiruhilekoarekin alderatuta, % 1,7.

***Higiezin agentziek etxebizitza bat saltzeko batez beste behar duten denbora 8,3 hilabetekoa da, duela urtebete baino ia hilabete gutxiago.***



ETXEBIZITZA, HERRI LAN  
ETA GARRAIO SAILA  
Zerbitzu Zuzendaritza  
Estatistikarako Organo Berezia

DEPARTAMENTO DE VIVIENDA,  
OBRAS PÚBLICAS Y TRANSPORTES  
Dirección de Servicios  
Órgano Estadístico Específico

| HIGIEZINEN ESKAINTZARI BURUZKO<br>INKESTA EUSKAL AUTONOMIA<br>ERKIDEGOAN       |                             | 2010ko 4.<br>hiruhilekoa |       | Aurreko<br>hiruhilekoarekik<br>o aldaketa |       | Aurreko urteko<br>hiruhileko<br>berarekiko<br>aldaketa |       |
|--------------------------------------------------------------------------------|-----------------------------|--------------------------|-------|-------------------------------------------|-------|--------------------------------------------------------|-------|
| 12 ERABILGARRIAREN BATEZ BESTEKO PREZIO                                        |                             | Euroak                   |       | Euros                                     | Var % | Euros                                                  | Var % |
| Euskal Autonomia<br>Erkidegoa                                                  | B.O. berria/Etxeb. Soziala  | 1.478                    |       | 8,6                                       | 0,6   | 24,9                                                   | 1,7   |
|                                                                                | Berria librea               | 3.927                    |       | -42,1                                     | -1,1  | -111,5                                                 | -2,8  |
|                                                                                | Erabilia                    | 3.892                    |       | 22,2                                      | 0,6   | 75,3                                                   | 2,0   |
| Araba                                                                          | Berria librea               | 3.526                    |       | 39,5                                      | 1,1   | 82,1                                                   | 2,4   |
|                                                                                | Erabilia                    | 3.478                    |       | -61,3                                     | -1,7  | 9,8                                                    | 0,3   |
| Bizkaia                                                                        | Berria librea               | 3.931                    |       | -32,3                                     | -0,8  | -146,2                                                 | -3,6  |
|                                                                                | Erabilia                    | 3.707                    |       | 49,9                                      | 1,4   | -30,0                                                  | -0,8  |
| Gipuzkoa                                                                       | Berria librea               | 4.162                    |       | -128,5                                    | -3,0  | -148,4                                                 | -3,4  |
|                                                                                | Erabilia                    | 4.772                    |       | 28,1                                      | 0,6   | 117,2                                                  | 2,5   |
| Euskal Autonomia<br>Erkidegoa                                                  | (1) MOTAKO ETXEBIZITZA      | 3.467                    |       | 48,5                                      | 1,4   | 87,3                                                   | 2,6   |
| Berria librea                                                                  | Gasteiz                     | 3.776                    |       | 52,9                                      | 1,4   | 51,8                                                   | 1,4   |
|                                                                                | Bilbo                       | 5.542                    |       | 99,8                                      | 1,8   | 406,9                                                  | 7,9   |
|                                                                                | Donostia                    | 4.818                    |       | -312,5                                    | -6,1  | -713,5                                                 | -12,9 |
| Erabilia                                                                       | Gasteiz                     | 3.532                    |       | -59,9                                     | -1,7  | -23,0                                                  | -0,6  |
|                                                                                | Bilbo                       | 4.276                    |       | 23,8                                      | 0,6   | 34,3                                                   | 0,8   |
|                                                                                | Donostia                    | 5.639                    |       | 102,9                                     | 1,9   | -87,6                                                  | -1,5  |
| ETXEBIZITZEN BATEZ BESTEKO PREZIOA                                             |                             | Milaka Euro              |       | Milaka Euro                               | Ald % | Milaka Euro                                            | Ald % |
| Euskal Autonomia<br>Erkidegoa                                                  | B.O. berria/ Etxeb. Soziala | 111,8                    |       | -0,9                                      | -0,8  | -2,6                                                   | -2,3  |
|                                                                                | Berria librea               | 321,6                    |       | -1,3                                      | -0,4  | -9,9                                                   | -3,0  |
|                                                                                | Erabilia                    | 325,1                    |       | 6,2                                       | 1,9   | 10,8                                                   | 3,4   |
| Araba                                                                          | Berria librea               | 294,6                    |       | 3,6                                       | 1,3   | 6,6                                                    | 2,3   |
|                                                                                | Erabilia                    | 284,3                    |       | -3,7                                      | -1,3  | -3,2                                                   | -1,1  |
| Bizkaia                                                                        | Berria librea               | 314,3                    |       | -1,4                                      | -0,5  | -14,9                                                  | -4,5  |
|                                                                                | Erabilia                    | 312,3                    |       | 10,1                                      | 3,3   | 4,9                                                    | 1,6   |
| Gipuzkoa                                                                       | Berria librea               | 346,9                    |       | -6,4                                      | -1,8  | -10,5                                                  | -2,9  |
|                                                                                | Erabilia                    | 398,5                    |       | 7,8                                       | 2,0   | 22,2                                                   | 5,9   |
| ETXEBIZITZA ESKAINTZA                                                          |                             | Unitateak                | %     | Unitateak                                 | Ald % | Unitateak                                              | Ald % |
| Euskal Autonomia<br>Erkidegoa                                                  | Guztizkoa                   | 28.226                   | 100,0 | -270                                      | -0,9  | 1.236                                                  | 4,6   |
|                                                                                | B.O. Berria/Etxeb. Soziala  | 3.410                    | 17,8  | -836                                      | -19,7 | -1.406                                                 | -29,2 |
|                                                                                | Berria librea               | 4.698                    | 19,4  | -103                                      | -2,1  | -544                                                   | -10,4 |
|                                                                                | Erabilia                    | 17.101                   | 51,2  | 952                                       | 5,9   | 3.274                                                  | 23,7  |
|                                                                                | Soziala/Librearen Alokairua | 3.018                    | 11,5  | -283                                      | -8,6  | -88                                                    | -2,8  |
| ALOKAIRU ETXEBIZITZEN BATEZ BESTEKO                                            |                             | Euroak                   |       | Euroak                                    | Ald % | Euroak                                                 | Ald % |
| Euskal Autonomia<br>Erkidegoa                                                  | BOE / Soziala               | 199,6                    |       | -10,3                                     | -4,9  | -24,8                                                  | -11,0 |
|                                                                                | Librea                      | 912,0                    |       | 19,6                                      | 2,2   | 17,7                                                   | 2,0   |
| ETXEBIZITZA BAT SALTZEKO BEHAR DIREN                                           |                             | 8,3                      |       | 0,2                                       | 3,1   | -0,8                                                   | -8,9  |
| AZKEN PREZIOAREN MURRIZKETAREN BATEZ<br>BESTEKO EHUNEOA. ETXEBIZITZA ERABILIAK |                             | %                        |       | Aldea<br>portzentajeak<br>o puntutan      |       | Aldea<br>portzentajeak<br>o puntutan                   |       |
| Euskadiko AE                                                                   |                             | 16,2                     |       | -3,5                                      | -17,8 | 3,1                                                    | 23,3  |
| Araba / Álava                                                                  |                             | 10,6                     |       | -0,1                                      | -0,7  | 2,9                                                    | 37,0  |
| Bizkaia                                                                        |                             | 12,2                     |       | -2,2                                      | -15,4 | -1,4                                                   | -10,2 |
| Gipuzkoa                                                                       |                             | 23,4                     |       | -6,2                                      | -21,1 | 9,4                                                    | 67,6  |

(1) Etxebizitza berria, kolektiboa, sustapen librekoa, sustatzaileak zuzenean eskainitakoa, akabera-maila "arrunta" duena eta 60 eta 90 m2 arteko azalera duena.

#### Ohar metodologikoa

2009ko laugarren hiruhileko datuak 119 higiezin-agentzik eta 5 etxebizitza baino gehiagoko sustapenak zituzten 171 sustatzailek osatutako lagin bati hiruhilekoaren amaieran egindako elkarriketatetik aterata dira. Nolanahi ere, ez dira



**ETXEBIZITZA, HERRI LAN  
ETA GARRAIO SAILA**  
*Zerbitzu Zuzendaritza*  
*Estatistikarako Organo Berezia*

**DEPARTAMENTO DE VIVIENDA,  
OBRAS PÚBLICAS Y TRANSPORTES**  
*Dirección de Servicios*  
*Órgano Estadístico Específico*

salmenta-prezioak, eskaintako prezioak baizik. Prezioak, eskaintza eta alokairuak kalkulatzeko, laugarren mailako batez besteko mugikorak ateratzen dira, ausazko aldaketak gutxiagotzeko.

---

***Informazio gehiago izateko:***

*Etxebizitza, Herri Lan eta Garraio Saila. Zerbitzu Zuzendaritza. Estatistikarako Organo Berezia*

*Donostia-San Sebastián kalea, 1, 01010 Vitoria-Gasteiz*

*Harremanetarako pertsona: Edurne Domingorena*

*Tel.: +34-945-01 97 12 Fax.: +34-945-01 64 07*

*Prensa-oharrak Interneten: <http://www.garraioak.ejgv.euskadi.net/r41-429/eu/>*

*WEBGUNEa: <http://www.garraioak.ejgv.euskadi.net/r41-429/eu/>*